

Kiroldegia

JOSE FERRERAS / EFE

Krosa**Sergei Lebed ukrainarrak ezustea eman zuen Zornotzan**

Zornotzako Nazioarteko Krosak ustekabeko irabazlea izan du aurten. Horrelako probetan afrikarrak dira beti faboritoak, baina igande honetan Ukrainatik etorritako Sergei Lebed izan zen azkarrena. Lebedek azken metroetan gainditu zuen Richard Limo kenyarra, eta segundo bateko aldearekin nagusitu zitzaion —Lebedek 33:28 minutuko denbora egin zuen—. Lebedek atzetik aurrerako lasterketa egin zuen, seigarren postuan baitzen lehen itzulietan. Europako Txapelketa irabazi zuen 98an. Emakumezkoen proban ez zen ezusterik izan eta Gete Wami etiopiarrek irabazi zuen, arazorik gabe.



AP

Rallyak**Kinigadner nagusi bosgarren etapan**

Dakar-Kairoko bosgarren etapan Heinz Kinigadner austriarra izan zen azkarrena mototan. Kinigadnerrek 13 segundoko aldea aterazion helmugan Joan

Roma liderrari. Hirugarrena Richard Sainct frantziarra izan zen. Autoetan, Jean-Louis Schlesser izan zen azkarrena, Petehansen aurretik.

Tiger Woods. Golf jokalarik estatu batuarrek bosgarren torneo irabazi du jarraian, Hawaiiiko Mercedes txapelketa irabazi baitu. Woods eta Ernie Els berdinduta iritsi ziren azken jardunaldira, eta azken txanpan Woods nagusitu zen. Orain arte 1953tik inork ez du PGA-ko bost torneo jarraian irabazi. Marka onena Byron Nelsonen du: 1945ean 11 torneo irabazi zituen bata bestearen atzetik.

Fabrice Santoro.

Tenislari frantziarra ATPk ezarritako zerrenda berriko lehen liderra da. Santorok Qatarren jokaturako Doha torneo irabazi du, finalean Rainer Schuttler alemaniarra gaindituta, eta urteko lehen liderra da. Hala ere, Santoro ez da zerrendaburua izango Australiako Irekian.


Emerson. Emerson futbolari brasildarrak bost urteko kontratua sinatu du Italiako Romarekin. Erdilariak Bayern Leverkusenen taldean jokatzeko, eta *Bild* egunkariak argitaratu duenez Alemaniako taldeak 3.660 milioi pezeta jasoko ditu jokalariren truke. Emerson ez da taldea utziko duen bakarra. Happe defentsa Schalke04 taldera joan da, eta Dirk Heinen atezaina eta Reichenberger aurrelaria Frankfurtera.



EPA

Futbola**Maradona hiltzeko zorian izan da**

Medikuek adierazi dutenez, Diego Armando Maradona futbolari ohia hiltzeko zorian izan da. Maradona kokainazalea da eta horrek bihotzean kalte handia egin dio, eta hilabete dezente eman beharko ditu zentro berezi batean, behingoz sendatzeko.



FRANK RIVERA / AP

Maratoia**Silvak irabazi du Disney Maratoia**

Walt Disney Maratoia Jose C. Silva brasildarrak irabazi du aurten —zazpigarrenez jokatu da—. Silvak ez zuen arazo handirik izan

nagusitzeko, nahiz eta Sao Pauloko korrikalariak nahikoa denbora eskasa egin: 2.25:40. Silvak ezin hobeto hasi du denboraldia.